BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Lea Ibarreko Mankomunitatea

1. LANEN DESPRIBAPEN OROKORRA

1.1. Plegu teknikoaren irismena

Agiri honen xedea Lea Ibarrako Mankomunitatearen MITECO Planean 2025erako ezarritako baso lanak arautuko dituzten oinarrizko baldintza teknikoak finkatzea da.

Estaldura Jarraituko Basogintza eredua alternatiba iraunkorra da euskal paisaia menderatu duen baso praktika intentsiboen aurrean, espezie autoktonoetan aberatsak diren basoak sortuz eta lurzoruak zein ekosistemak pobretzen dituzten monolaborantzak baztertuz.

Baso autoktonoek landare- eta animalia-espezie gehiago dituzte, eta ekosistema konplexuagoak eta erresilienteagoak sortzen dituzte izurriteen, gaixotasunen eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean. Landaketa intentsiboetan ez bezala, baso misto horiek euskal lurraldearen berezko aberastasun naturala berreskuratzen dute.

Baso-ekoizpena kontserbazioarekin orekatzen duen kudeaketa iraunkorra bilatzen da, mozketa masiboak saihestuz eta zuhaitz helduak banaka hautatzea lehenetsiz. Horrela, baso-estaldura iraunkorra mantentzea ahalbidetuko da, lurzorua higaduratik babestuz eta ekosistemaren funtzionaltasuna zainduz kalitate handiko baso-produktuak lortzen diren bitartean.

Azkenik, dimentsio ekologikoaz haratago, ekimenak konpromisoa adierazten du landa-komunitateekin eta euskal natura- eta kultura-ondarea zaintzearekin.


Krisi klimatikoak eta biodibertsitatearen galera bizkorrak markatutako testuinguru globalean, basoak klima-aldaketa arintzeko funtsezko karbono-hustubideak izateaz gain, funtsezko zerbitzu ekosistemikoak ere eskaintzen dituzte, hala nola erregulazio hidrikoa, higaduraren prebentzioa eta espezie ugarirentzako habitaten sorrera.

Baso-eredu jasangarri horretarako trantsizioak paradigma aldatzea eskatzen du basoekin dugun harremanean. Orain arte nagusi izan den ikuspegi produktibista hutsaren aurrean. Ikuspegi hori beharrezkoa izateaz gain, ekonomikoki bideragarria da epe luzera, basoen kalteberatasuna murrizten baitu eta bertako produktuak eta zerbitzuak dibertsifikatzen baititu.

1.2. Lanaren kokapena

Identifikatutako eta plegu honen xede den jarduketa unitatea honako hau da:

- Munitibarko 6. poligonoa – 325. Partzela → Azalera (ha): 3,75 ha.



*I. eranskin*ean, Bizkaiko katastrotik datorren informazio guztia jasotzen da.

1.3. Unitatearen eta lanen deskribapena

325. partzelan pinu landaketa bat egon zen (QB Intsinis pinua), eta, orain, sastraka-birsorkuntza natural bat egon da, 2024an mozketa bat egin ondoren. Lurzati horri dagozkion lanak honako hauek dira:

- Belar sastrakak erabat garbitzea
- Espezie autoktonoen birlandaketa bat egitea

Helburua, estaldura jarraituko baso bat lortzea izango da.

2. LANAK GAUZATZEA

2.1. Hasiera eta zuinketa

Lanak esleitu ondoren, Lea Ibarrako Mankomunitateari jakinaraziko zaio noiz hasiko diren.

Lanak hasi aurretik, kontratista eta Mankomunitatea partzelan bertan bilduko dira, lursailaren eremuak zeintzuk diren egiaztatzeko. Era berean, jarduera bakoitzean jarraitu beharreko metodologia ere zehaztuko da. Bilera horren akta egingo da eta adierazitako alderdi garrantzitsu guztiak jasoko dira bertan. Kontratistaren erantzukizuna da parte hartzen duten alderdi guztiak deitzea.

Kontratistak seinaleztapen material egokia hornitu behar du, mugaketa behar bezain argi gera dadin.

2.2. Egin beharreko lanak

Aldez aurreko ekintza fasean, sastrakak moztuko dira eta mozketaren hondakinak multzotan pilatuko dira, betiere, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren iritziz, distantzia nahikoa utzita multzoen artean, kendu behar den sastraka eta mozketa hondakinak kontuan hartuta.

Pilaketak ez dira inolaz ere egingo erreken gainean. Aldez aurretik aprobetxatu ez diren espezie autoktonoen zuhaiztiak eta zuhaitzak errespetatuko dira. Halen inguruan leku nahikoa utziko da landatu gabe zuhaitzak bizirauteko. Salbuespen gisa oin isolaturen bat moztu behar bada, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak berariaz adieraziko du.

Berdin jokatuko da oin horietakoren bat inausi behar denean, landaketaren iraupena ziurtatzeko.

Sasi garbitzea eskuzko makina batekin egingo da. Sastrakak kentzeko lanak, oro har, ez dira inola ere egingo motozerrekin edo lan horiek egiteko berariaz diseinatuta ez dauden beste tresna batzuekin.

Une oro errespetatuko dira espezie autoktonoak eta ahal den neurrian, ez zaie kalterik egingo belar sastrakak garbitzeko unean.

Sastrakak garbitzeko altuera ahalik eta txikiena izango da, lurzoruaren ezaugarrien arabera.

Sastrakak kentzeko unean faunaren babeslekuren bat ikusten bada, eremu horretako sastraken kentzea gelditu egingo da eta berehala jakinaraziko zaio Mankomunitateko arduradunari. Hark erabakiko du nola jardun.

Landarediaren ezaugarriak, urte sasoi eta baldintza meteorologikoak direla eta, sasi garbitzeko makinetan sor litekeen txinparta batek sutea eragiteko arriskua badago (adibidez, harri batekin talka egitean), Mankomunitateko arduradunak lanak eten ahal izango ditu arrisku hori desagertu arte.

Belar sastrakak kendu arte, ez dakigu zehatz mehatz zer azalera dagoen landatzeko, bertan hazitako espezie autoktonoak kontuan izango dira eta. Horregatik, landareen kokapen zehatza ez da erabakiko dena erabat garbitu arte. Mankomunitatea arduratuko da landare horiek belar sastrakak kendu ondoren non jarriko diren erabakitzeaz.

2.3. Makineria eta ibilgailuak

Kontratuaren xede diren lanak betetzeko, enpresa adjudikaziodunak egin beharreko lanen ingurunearen baldintzetara egokitzen diren ezaugarriak dituzten makinak izan beharko ditu.

Zerbitzuan erabiltzen diren makinek behar bezala eduki behar dituzte baimen eta lizentzia guztiak. Erabilera egoera onean egon beharko du, ikuskapenak eta mantentze lanak eginda, fabrikatzailearen jarraibideen arabera.

3. XEDAPEN OROKORRAK

3.1. Esleipena

Obrak prozedura ireki arruntaren bidez kontratatuko dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako esleipen prozeduren arabera eta dagozkion administrazio pleguetan ezarritako klausulen arabera.

3.2. Gauzatzeko aldiak eta epea

Egin beharreko lan guztietarako, lau aste natural egongo dira.

3.3. Kontratista

3.3.1. Langileekiko harremana

Enpresa kontratistari bakarrik dagokio lan taldea sortzeko langileen kontratazioa egitea.

Kontratu hau gauzatzeko egongo diren langileak, enpresa kontratistaren mende egongo dira soilik; ez dute Lea Ibarreko Mankomunitatearekin bestelako harremanik izango, ez behintzat Plegu honetatik haratago doan harremanik.

3.3.2. Kontratistaren ordezkaria

Kontratua behin betiko esleitu ondoren, enpresa kontratistak koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatuko du. Koordinatzaile horrek bere gain hartuko du egiten diren lanetan langileen eta makinen zuzendaritza eta koordinazioa, eta bere ordezkari gisa jardungo du Administrazioaren aurrean, kontratua betetzen den bitartean behar diren ondorio guztietarako. Betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

- Kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen arduradun zuzena izango da.
- Enpresa esleipendunaren solaskidea izango da Administrazioaren aurrean.
- Enpresa kontratistak izendatutako pertsonaren koordinazioak berekin ekarriko du lanak programatzea eta lanak egiteko makinak hautatzea, Lea Ibarrako Mankomunitateko arduradunekin batera egindako aurretiazko plangintza batean oinarrituta.
- Kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatuko du lana, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta lan jarraibideak emango dizkie langile horiei.
- Lantaldea osatzen duten langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratuko du.

3.3.3. Erantzukizunak

Kontratistaren kontura izango dira obrak egiteko behar diren lizentziak eta baimenak lortzea.

Enpresa kontratista izango da bere ardurapeko langileen ekintzen ondorioz edo lanen antolamendu okerraren ondorioz lanak egiteak edozein pertsonari, jabetzari edo

zerbitzu publiko edo pribaturi eragin diezazkiokeen zuzeneko edo zeharkako kalteen erantzulea.

Kaltetutako zerbitzu eta jabetza publiko edo pribatuak eta pertsona fisiko edo juridikoak kontratistaren kontura konpondu edo konpentsatu beharko dira.

Lanak amaitzean, eta behin betiko entregatu aurretik, kontratista behartuta dago obrak egitean sortutako materialak eta hondakinak kentzera (bilgarriak, plastikoak, erregaien ontziak, etab.). Era berean, sarbideetako eta beste azpiegitura batzuetako obren aurreko baldintzetan geratuko dira, baldin eta lanen exekuzioaren eragina jasan badezakete.

3.3.4. Erantzukizun zibileko asegurua

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat hitzartuta eduki beharko du, kontratua gauzatzetik erator daitezkeen arriskuak estaltzeko.

3.3.5. Enpresa kontratistarenak ez diren langileak. Azpikontratazioa.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, gehienez ere, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia zenbatekoa izango den, hauen identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazita. Horrela, justifikatuta geratuko da azpikontratistak kontratua gauzatzeko duen gaitasuna.

3.4. Mankomunitatearen ardura

Mankomunitatea arduratuko da kontratuaren xedea behar bezala betetzen dela egiaztatzeaz, ikuskatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz, bai eta kontratista esleipendunarekin zuzeneko harremana izateaz ere.

3.5. Proiektuaren kontraesanak eta omisioak

Mankomunitateari dagokio agiri honetan behar bezala zehaztuta ez dauden alderdiak argitzea.

3.6. Lanak geldiaraztea eta obra kopurua aldatzea

Eguraldiagatik edo lanak jarraitzea gomendatzen ez duten bestelako arrazoiengatik, Mankomunitateak lanak aldi baterako geldiarazi eta atzeratu ahal izango ditu, eta kontratistak ez du eskubiderik izango sortutako arazoengatik kalte ordainik jasotzeko.

Era berean, ez da kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango obra egin aurretik eta egin bitartean obra kopuruak aldatu edo ezabatzen badira.

3.7. Berme epea

Berme epea urtebetekoa izango da, obra jasotzen denetik kontatzen hasita.

Kontratistak lanen exekuzio desegokiari egotz dakizkiokeen akatsen erantzukizuna izango du.

3.8. Segurtasun eta osasun neurriak

Enpresa esleipendunak lan arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du alderdi guztietan, baita proposamen honetan dagokion dokumentuan jasotako segurtasun- eta osasun-arloko zehaztapenak ere.

Zerbitzu hau gauzatzearen eremuan, laneko arriskuen prebentzioak beti egon beharko du lotuta honako faktore hauen behaketarekin:

- Lan metodo zuzena hautatzea (babes kolektiboa).
- Egindako ahalegina kontrolatzea, kudeatzea eta txandak planifikatzea.
- Hornidura egokiak.
- Lan ingurunerako egokiak diren norbera babesteko ekipamenduak jartzea.
- Lan ekipamenduen mantentze lan egokiak.
- Langileen prestakuntza eta informazioa.

Enpresa kontratistak edo haren mendeko pertsonek zerbitzuaren segurtasuna arriskuan jartzen edo nahasten duten ekintzak edo omisioak egiten badituzte, edo lan programak betetzen ez badituzte, Mankomunitateak neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko eskatu ahal izango dio, zerbitzua behar bezala ematea lortzeko edo hura berrezartzeko. Langileen ardura da ibilgailuen eta makinen segurtasun neurri guztiak zorrotz betetzea.

3.8.1. Norbera babesteko ekipamenduak

Langileek norbera babesteko ekipamendua (EPI) izan beharko dute, enpresak emana.

3.8.2. Prestakuntza

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza ezinbesteko baldintza da lanak behar bezala egiteko. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza langile bakoitzaren lanpostuan zentratuko da espezifikoki, arriskuen bilakaerara egokitu beharko da, eta aldian-aldian errepikatu beharko da, beharrezkoa izanez gero.

3.9. Hainbat xedapen

Esleipendunaren eta Mankomunitate administrazioaren artean sortzen diren arazo tekniko guztiak, baldintza agirian aurreikusita ez daudenak, arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera ebatziko dira.

4. LANEN KONTROLA, NEURKETA ETA ORDAINKETA

4.1. Lanen neurketa eta ordainketa

Lanak baldintza agiri honetako aurrekontuan zehaztutakoaren arabera neurtuko dira.

Ezarritako prezioetan sartuta daude unitate horiek egiteko behar diren eragiketa guztiak, bai eta horiek gauzatzeko behar diren material, makineria eta eskulan guztiak hornitu, manipulatu eta erabiltzea ere.

4.2. Egindako lanak

Plegu honetako baldintzen eta Mankomunitateak emandako jarraibideen arabera egindako lanak baino ez dira ordainduko.

5. LANAK JASOTZEA

5.1. Lanak jasotzea

Lanen behin betiko harrera bi alderdiek sinatutako Harrera Aktaren bidez egingo da, eta Mankomunitateak deskribatutako lan guztiak onartu ondoren.

5.2. Lege-xedapenak betetzea

Kontratistak konpromisoa hartzen du lan-istripuei, nahitaezko aseguruei, familia-sorospenari eta gai horri buruz indarrean dauden edo aurrerantzean emango diren gainerako lege xedapen guztiei buruzko lege eta erregelamendu guztiak betetzeko.

ERANSKINA I

Katastroaren ziurtagiria

Ziurtagiri honek higiezinari buruz, jaulkipen-datan, Katastro eta Balorazio Zerbitzuaren datu basean dauden datuak jasotzen ditu, ez du hirugarrenik lotesten, eta bera bakarrik ezin da erabili higiezinaren jabetzaren proba gisa.

Certificación catastral

La presente certificación, refleja los datos del inmueble en la base de datos del Servicio de Catastro y Valoración a fecha de la emisión, sin carácter vinculante para terceros y sin que en ningún caso pueda constituir por sí sola prueba de la propiedad del inmueble.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Ziurtagiri zenbakia/Nº certificado: CE-2025-00130516

Eskatzailea IFZ/
NIF solicitante
P4800800G


Emisio data/
Fecha de emisión
05/11/2025 11:08

Ondasun higiezina/Bien inmueble: 007-0006-00325-0001 — **MUNITIBAR-ARBATZEGI GERR**

Azpipartzela/ Subparcela	Elementua/ Elemento	Erabilera/ Uso	Katastro-azalera/ Superficie catastral (m²)	Katastro balioa/Valor catastral (€) Lurzorua/ Suelo	Eraikuntza/ Construcción	Guztira/ Total
00 Lan/Rus	C0255020D	QB Radiata pinua/Pino radiata	37.507,18	4.927,54	.....	4.927,54

Ondasun higiezinaren balioa/Valor catastral del inmueble 4.927,54 €

Partzela/Parcela: 007-0006-00325 — **Partzelaren azalera/Superficie de la parcela:** 37.507,18 m²



Jabetza erregistroarekiko koordinazio grafikoa/Coordinación gráfica con el registro de la propiedad

Erregistroa/Registro:	**Erregistro-kode bakarra**/Código registral único:	**Koordinazio-data**/Fecha coordinación:
		Ez dago koordinatuta/No está coordinado

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VUY3-MUOQ-DNRC-IPSW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ziurtagiri zenbakia/Nº certificado: CE-2025-00130516

Titularren zerrenda/Relación de titulares

Zb/Nº	IFZ/NIF	Deiturak eta izena edo baltzu-izena/Apellidos y nombre o razón social	Koef/Coef	Mota/Tipo
1	P4800800G	AYUNTAMIENTO DE MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ-MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZKO UDALA	100.00%	Jabari osoa/Pleno dominio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: VUY3-4MJOQ-DNRC-1PSW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.elbizkaia.eus